



INGURATZAILE TERMIKOA ESKOLAN

Oihanzabal eskola termikoki isolatuko da aurten. Basaburuko Udalak obra onartu du eta urriaren 21erako amaitu nahi du, baina obrek ez dute ikasturte hasiera oztopatuko. 253.000 euroko kostua du (B.E.Z.a kanpo) baina 250.000 euro Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak ordainduko ditu, EH Bilduk aurkeztutako zuzenketa bati esker. Inguratzaile termikoa eraikin zaharraren teilatuan eta kanpo paretetan jarriko da. Arotzeria ere aldatuko da, efizienteagoa den batengatik. Teilatuaren kasuan, eraikin berrikoa ere isolatuko da, Ttikiena kokatzen den aldekoa. Helburua, beroa hobe gordetzea da, energia eta gastua aurrezteko. Izan ere, isolamendua hobetzeak instalazioen mantentze-gastuak ere murriztuko ditu.




ENVOLVENTE TERMICA EN LA ESCUELA

El Ayuntamiento de Basaburua va a aislar termicamente la escuela Oihanzabal este año. Ha aprobado la obra y quiere acabarla para el 21 de octubre, pero no obstaculizará el principio de curso. Tendrá un coste de 253.000 euros (sin I.V.A.) pero de los que 250.000 serán financiados por el Departamento de Educación del Gobierno de Navarra, mediante una enmienda presentada por EH Bildu. La envolvente se colocará en el edificio antiguo, en paredes externas y tejado y también se cambiará la carpintería por una más eficiente. En el caso del tejado, se aislará también el del edificio nuevo, donde se ubica Ttikiena. El objetivo es que mantenga mejor el calor, para ahorrar energía y gastos. Y es que el aislamiento también reducirá los costes de mantenimiento de las instalaciones.

BASABURUKO BASO BABESLEA HANDITUKO DA

Cederna Garalurren bitartez kudeatzen den Helmugako Turismo Jasangarrirako Planaren (HTJP) barruan kokatzen den elementu naturalez osatutako jostatzeko parkea da. Joan zen urtean eraikitzen hasi zen, lehenengo fasea burutu zenean. Orain, Udalak bigarren fasea onartu du (irudian marra arrosatik ezkererantz) eta maiatzeko amaitu nahi du. Lehenengoan bezala, lanen gastua osorik diruz lagunduta dago: 67.460,65 euro eta Cederna Garalurrekin hitzarmena sinatu da horretarako. Humus Sapiens S.L. enpresak zuzentzen ditu Amets Gardezabal Arboristari esleitutako lanak. Parkearen azpiegitura handituko eta bidea aldatuko da, parkea inguratu dezan.

Umeei zuzendua, mitologian oinarritutako jostaketetarako guneaz ari gara, Oihanzabal basoan, Jauntsaratsen. Metro bateko altuerako egur harresi batek itxia, barruko gune garbian haritzak eta egitura zirkularrek eta laberintikoek osatutako oztopo txikiak tartekatzen ditu. Guztia basotik bertatik aprobetxatutako material begetalez osatuta. Orain azalera handituko du.



CRECE EL BOSQUE PROTECTOR DE BASABURUA

Es el parque de juego formado por elementos naturales que se enmarca en el Plan de Sostenibilidad Turística en Destino (PSTD) que se gestiona a través de Cederna Garalur. Comenzó a construirse el pasado año, cuando se llevó a cabo la primera fase. Ahora, el Ayuntamiento ha aprobado la segunda (en la imagen, de la línea rosa hacia la izquierda), que quiere acabar para mayo. Al igual que en la primera, está completamente financiado por una subvención de 67.460,65 euros y para ello se ha firmado el acuerdo con Cederna Garalur. Las obras las dirige Humus Sapiens S.L. y se le han adjudicado a Amets Gardezabal Arborista, que aumentará la superficie y cambiará el camino para que rodee el parque.

Dirigido a niños y niñas, y en el bosque Oihanzabal, es un espacio de diversión basado en la mitología y el bosque encantado. Es un espacio cercado por un murete formado por maderas y de un metro de altura. En su interior se alternan robles con pequeñas murallas vegetales circulares y semi-circulares que forman un laberinto. El material vegetal se ha extraído del propio bosque.

EGUNEKO ZENTROKO LANGILEAK KONTRATATZEKO DEIALDIA

Basaburuko Udalak Eguneko Zentroko langileak kontratatze deialdia egin eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuan argitaratu du. Hiru lanpostuetarako perfilak bilatzen dira: Eguneko Zentroko zuzendaritzarako gizarte langile bat, zaintzarako arreta sozio-sanitariorako langile bat eta sukaldari bat. Oinarriei dagokionez, zuzendari posturako euskara maila C1ekoa izan beharko du eta zaintzaile eta sukaldarirako B2 maila eskatuko da. Titulurik ez duenak proba egin dezake. Oinarri guztiak, dena den, **basaburua.eus** webgunean aurkituko dituzue. Interesatuak martxoaren 4ra arte dute eskariak egiteko, eta dokumentazioa **txokolatero@basaburua.eus** helbidera bidali behar dute. Dena ongi bidean, euskarako proba eta azterketa martxoaren 10ean eta 13an izanen dira. Martxoaren bukaerarako bukatu nahi da prozesua eta Basaburuko Eguneko Zentroa udaberrian zabaldu, Txokolateroren etxe zaharberrituan, Jauntsaratsen.

Eguneko Zentroko deialdiez gain, Ttikiena Haur Eskolako hezitzaileen ordezkapen zerrenda agortua dago eta hura berritzeko deialdia zabalduko da. Oinarriak eta eskaerak egiteko epea berehala argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean.



LAS CONTRATACIONES PARA EL CENTRO DE DÍA, EN PROCESO

El Ayuntamiento de Basaburua ha abierto la convocatoria para cubrir tres puestos del Centro de Día, ésta la ha publicado en el Servicio Navarro de Empleo. En concreto son tres perfiles los que se buscan: uno de trabajador o trabajadora social para la dirección del centro, otro puesto para la atención socio-sanitaria de las personas usuarias y el último para cocinero o cocinera. En cuanto a las bases, para el puesto de dirección será necesario tener un C1 de euskara y para los otros dos un B2. Quién no tenga título puede hacer la prueba de idioma. Todas las bases se pueden encontrar en la web **basaburua.eus**. Las personas interesadas deberán entregar la documentación para el 4 de marzo y mandarla a **txokolatero@basaburua.eus**. Si todo va bien, las pruebas serán el 10 y 13 de marzo. El proceso está previsto que acabe a finales de marzo y de esta manera abrir el centro en primavera, en la rehabilitada casa de Txokolatero, en Jauntsarats.

Además de las convocatorias del Centro de Día, las listas de sustitución de educador/a de la Escuela Infantil Ttikiena está agotada y se va a renovar con una nueva convocatoria. La nueva lista sustituirá la anterior y las bases del proceso y los plazos para presentar solicitudes se van a publicar en el Boletín Oficial de Navarra.

ORDEZKO BAKE EPAILEA IZENDATU DA

Irailean izendatutakoa beste udalerrri bateko bake epailea zenez izendapena atzera bota zuen Nafarroako Auzitegi Nagusiak. Horregatik, Basaburuko Udalak berriz ireki zuen eskaerak egiteko epea baina ez zuen bakar bat ere jaso eta, horregatik, 1995/3 Bake Epaileen araudiaren 6 eta 7 artikulua jarraituz zozketa bidez egin da izendapen berria. Amaia Arano Nagore da Bake Epaille Ordezko berria.

NUEVO JUEZ DE PAZ SUPLENTE

En septiembre se nombró a un nuevo juez de paz suplente pero desde el Tribunal Superior de Navarra se notificó que éste ya lo era en otro municipio, y, por lo tanto, suspendió el nuevo nombramiento. El Ayuntamiento de Basaburua abrió de nuevo el plazo para mandar solicitudes pero no recibió ni una. Así, siguiendo los artículos 6 y 7 de la Normativa de Juez de Paz 1995/3 el nuevo nombramiento se ha realizado mediante sorteo. Amaia Arano Nagore será la nueva suplente de Juez de Paz.

AURREMATRIKULA EPEA ZABALIK ESKOLETAN

Ttikiena Haur Eskolan otsailaren 23an zabaldu zen eta martxoaren 6ra bitartean egin daiteke. Horregatik, otsailaren 9an ate irekiak egin zituzten gurasoek proiektua eta gunea ezagutzeko aukera izan zezaten. Ondoren, 3 urtetik gorako umeendako, Oihanzabal eskolan aurrematricula egiteko epea martxoaren 9an irekiko da eta 13ra arte egin daiteke.

BASABURUKO SENDAK, DIGITALIZATUAK

Basaburuko sendak digitalizatu eta Nafarroako Gobernuko weborrian jarriko dira. Horrela, Eurovelo, GR-12a eta Haritz monumentalen bideak internet bidez jarraitu ahal izanen dira. Gainera, kontzejuek nahi dituzten haien herrietako sendak ere jasotzeko proposamena egin dezakete. Honetaz gain, bestetik, Basaburua lotzen duten bideen hainbat seinale berri dira.

LAS PISTAS DE BASABURUA, DIGITALIZADAS

Las pistas y caminos de Basaburua se van a digitalizar para recogerlas en la página web del Gobierno de Navarra. Así, Eurovelo, GR-12 y los caminos de los robles monumentales se podrán seguir en internet. Los concejos también pueden hacer sus propuestas para que se recojan otras pistas y caminos de cada pueblo. Además y por otro lado, se han renovado las señales de algunos caminos que unen los diferentes pueblos del valle.

ABIERTA LA PREMATICULA EN LAS ESCUELAS

En la Escuela Infantil Ttikiena se abrió el 23 de febrero y se podrá realizar hasta el 6 de marzo. Por eso, el 9 de febrero realizaron una jornada de puertas abiertas dirigida para que padres y madres pudieran conocer el proyecto y el espacio. Después, para los txikis de más de 3 años, el plazo para la prematricula de Oihanzabal se abrirá del 9 al 13 de marzo.



EGUTEGIA/ CALENDARIO:

MARTXIA/ MARZO						1	
	2	3	4	5	6	7	8
	9	10	11	12	13	14	15
	16	17	18	19	20	21	22
	23	24	25	26	27	28	29
	30	31					

● M8 - EMAKUMEAREN
NAZIOARTEKO EGUNA

● PALA ETA FRONTENIS
TXAPELKETA

Txapelketaren
informazio +/
+ info del campeonato

